

AHALERA ETA AHALERAREN ADIZKIAK DEBA IBARREAN

Euskal Ikasketen Gradua

2019-2020. Ikasturtea

Egilea:

Oihana Lado Guisasola

Zuzendaria:

Arantzazu Elordieta Alcibar

LABURPENA

Ahalerako adizkien erabilerari dagokionez, iruditzen zait estandarraz besteko hizkeretako hiztunok sarri zalantzak izan ohi ditugula. Aldaera estandarreko arauak ondo ezagutu arren, jakin badakigu ahozkoan erregelak bestelakoak direla, eta lan honetan ahaleraren erabilera aldatuz doala erakutsi nahiko nuke. Gure ingurura begiratzea bestetik ez dago, gaur egungo gazte askok, gehienak ez esatearren, ahalera erabili beharrean *ahal* partikula edo aditz modala darabilte indikatiboko adizkiekin. Horrezaz gain, badira nagusitzen ari diren beste zenbait forma eta baita euskararen adituek berriztat jotzen dituztenak ere. Hori dela eta, lan honen xedea ahaleraren hainbat forma deskribatzea eta horien berri ematea izango da.

Bestalde, honelako lan batean ezin ditzaket ahalerak dituen aldakuntza, txandakatze edo forma berri guztiak aztertu. Horregatik, mendebaldean zein erdialdeko zonalde batzuetan entzun daitekeen txandakatze bat aztertzea erabaki dut: *neike-leiket* adizkien txanda-katzea, hain zuzen. Eibartarrok ‘*ni joan neike*’ edo ‘*ni joan leiket*’ esan dezakegu; gauza bera gertatzen da aditz iragankorrekin ‘*Zuk ogia erosi leikezu*’ edo ‘*erosi zeinke*’.

Deba Ibarrean ez ezik, mendebalde zabalean zein erdialdeko hainbat zonaldeetan entzun daitekeen txandakatzea da. Haatik, aurrerago azalduko den moduan, *leikezu* bezalako adizkiak ez dira ontzat ematen edo berriztat jotzen dira. Horregatik, txandakatzearen erabilera eta bilakabidea aztertzea izango da asmo nagusienetako bat.

Egituraketari dagokionez, lan honek lau atal izango ditu. Lehendabiziko atalean, alde batetik, ahalaren erabilerari buruzko, *-ke* morfema eta aditz aspektuari buruzko hainbat ohar emango ditut. Bestetik, aditz erroak aipatzeaz gain, jatorriz mendebaldekoak diren ahalera adizkiak erdialdeko euskaran ere lekukotzen direla ikusiko dugu eta, mendebaldeko zein erdialdeko zonaldeetan erabilera bera duten *leiket-neike* bezalako formen inguruko aipamenak eta iritziak jasoko ditut.

Bigarren atalari dagokionez, mendebaldeko euskara orokorraren eta Deba Ibarreko hiru hizkeren (Elgoibar, Eibar eta Arrasate) alegiazko adizkiak bilduko ditut, haien artean erkaketa bat egiteko asmoz. Atal honetan, batik bat, ahozko erabileran ahalerak dituen ezaugarriak azpimarratuko ditut.

Behin, egungo ahaleraren ezaugarriak eta aldaketak zeintzuk diren ikusirik, hirugarren atalean *neike- leiket, leikezu-zeinke* bezalako formen artean egon daitekeen txandakatzea noiztik lekukotuta dagoen begiratuko dut. Horrela bada, mendebaldeko antzinako testu idatzietara pasatuko naiz. XVI. mendean hasi eta XX. mendera arteko agerraldiak aztertuz. Azterketa honetan, '*leikezu*' zein '*zeinke*' bezalako formak erabiltzen dituzten autoreak jasoko ditut, hau da, bi formen erabilera duten autoreen agerraldiak soilik. Lazarraga (1567), Moguel (1802), Astarloa (1818), Uriarte (1850), Arrese Beitia (1902-1906), Kandido Basabe (1914), Kirikiñoren (1918) eskutik jasotako adizkiak izango dira, besteak beste. Hemen ere, garai bateko ahalerak izan dituen ezaugarriak aipatuko ditut eta txandakatzeren bilakabidea nolakoa izan den azalduko dut.

Lanarekin amaitzeko, lan guztian zehar adierazi-takoaren ondorio eta ezaugarri orokorrak emango ditut.

AURKIBIDEA

1.	Sarrera	5
1.1	Ahaleraren ohar orokorrak	5
1.2	Ahaleraren aditz erroak	5
2	Deba Ibarreko hizkerek Mendebaldeko euskalkiekin partekatzen dituzten adizkiak	9
2.1	Elgoibar, Eibar, Arrasate eta mendebalde orokorraren adizki-etaulak	10
2.1.1	NOR	10
2.1.2	NOR-NORI	10
2.1.3	NOR-NORK.....	11
2.1.4	NOR-NORI-NORK.....	12
3	Txandakatzearen antzintasuna testu idatzietan	14
3.1	1.pertsona singularra: <i>leiket - neike(z)</i>	15
3.1.1	LAZARRAGA (1567)	15
3.1.2	PEDRO ASTARLOA (1818).....	17
3.1.3	JOSE ANTONIO URIARTE (1850).....	18
3.1.4	FELIPE ARRESE BEITIA (1900-1902)	19
3.2	2. pertsona singularra: <i>leikezu(z)-zeinke(z)</i>	19
3.2.1	JUAN MATEO ZABALA (1816-1833)	20
3.2.2	JUAN ANTONIO MOGUEL (1802,1881).....	20
3.2.3	KANDIDO BASABE (1914).....	20
3.3	3. pertsona singularra: <i>lei(z)-leike(z)</i>	21
3.3.1	LAZARRAGA (1567)	22
3.3.2	JOSE OTXOA ARIN (1713)	23
3.3.3	JOSE ANTONIO URIARTE (1850).....	24
3.3.4	KIRIKIÑO (1918).....	24
3.4	1. pertsona plurala: <i>leikegu(z)- geinke(z)</i>	25
3.4.1	JUAN ANTONIO MOGUEL (XVIII.mendea)	25
3.4.2	JOSE ANTONIO URIARTE (1850).....	25
3.4.3	DOMINGO AGIRRE (1898-1916).....	26
3.5	2. pertsona plurala: <i>leikezue(z)-zeinkie(z)</i>	26
3.5.1	URIARTE (1857-1866)	26
3.5.2	KIRIKIÑO (1913-1928).....	26

3.6	3.pertsona plurala: <i>leie(z)-leikie(z)</i>	27
3.6.1	LAZARRAGA (1567)	27
3.6.2	ASTARLOA (1818).....	27
3.6.3	KIRIKIÑO (1913-1928).....	28
4	Ahaleraren bilakabidearen ezaugarri orokorrak	30
5	Bibliografia	31

1. Sarrera

1.1 Ahaleraren ohar orokorrak

Aditz potentziala subjektuak ekintza edo gertaera bat gauzatzea posible ikusten duen edo ez adierazteko erabili ohi da. Eta zerbait gertatzeko posibilitatea hurbilago ala urrunago kokatuz, adizki desberdinak erabiltzen dira. Orainaldi hurbilean edo gertatzeko aukera erreala ikusten denean orainaldiko adizkiak erabiltzen dira, esaterako, *Amonarengana joan naiteke* adibidean berehala edo hizketa denboratik hurbilera gerta daitekeela adierazi nahi dugu; aukera urrunago edo ez hain posible ikusten denean *amonarengana joan ninteke* (bihar, datorren astean) bezalako adizki hipotetikoak erabiltzen dira eta zerbait gertatzeko posibilitatea lehenaldian kokatzen dugunean *amonarengana joan nintekkeen* (atzo, herenegun) bezalako lehenaldiko adizkiak erabiltzen ditugu.

Horrezaz gain, honako aditzetan aditzoina erabiltzen da euskara estandarrean, hau da, aditz nagusiak ez du aspektu markarik hartzen. Halere, Koldo Zuazok ohartarazten duenez, mendebaldean, erdialdean eta Nafarroako hainbat hizkeratan aditzoina galdu egin da, alegia, *sar daiteke* beharrean *sartu daiteke* nagusitu dela. Hala da mendebalde osoan eta, beraz, aztertuko ditudan hizkeretan ere hala izango da. (Zuazo, 2000: 199).

Bestetik, gaur egungo ahalerak *-ke-* atzizki modala daukan arren, XV eta XVI. mendeetan *-ke* eta *-te* atzizkiek aspektuzko, denborazko eta moduzko zenbait funtzio betetzen zuten. XVI. mendean etorkizuna, hipotetikoa, potentziala eta ustea markatzeko balioa zuten atzizkiok. (Mounole, 2011:32)

1.2 Ahaleraren aditz erroak

Adizki potentzialetan bi aditz erro dira besteen gaintik gailentzen direnak: **edin* eta **ezan*. Adizki horiek ahalera, subjuntibo zein agintera perpausetan aurkituko ditugunak dira; adibidez: *daiteke*, *zitekeen*, *liteke* eta *dezake*, *zezakeen*, *lezake*. Bestetik, *izan* eta **edun* aditzak ditugu, indikatiboan zein aditz potentzialetan ere erabil daitezkeenak; *esin gueiyego eguin euquean*, “egin zezakeen” interpretazioa duen **edun* laguntzaileko ahalera (Ulibarri,2015:372). Haatik, kontuan izan behar dugu euskara estandarretik kanpo ere beste zenbait laguntzaile badirela: *egin* mendebaldeko adizkietan aurkitzen den erroa: *kanta(tu) da(g)igun*, *ikusi da(g)ikezu*, Lazarragaren testuan aurkitzen den *ney* adizkia: *ezin gueiago artu ney*; **-idi-* erroa, eginen erro supletibotzat jotzen dena, *ecin contadu al leidi*, *daidi* (Bilbao et al.,2011) eta **iro(n)* lapurtera zein behe-nafarrerako

hizkeretan aurkitzen dena, *Heben lehenic boroga eçaçu, cer soferi diroçun guero, noula ukhen diroçu*, (Maister, XVIII.mendea) (Mounole, 2011:252).

Ahaleraren erroen aurkezpena alde batera utzita, Pedro Irizarren *Sobre la extensión del subjuntivo y del potencial vizcaínos* (1991) lanean, erdialdeko eremuetara hedatu diren mendebaldeko subjuntibo eta ahaleraren flexioak aztertu dituzte; eta badirudi ahaleraren kasuan flexio hauen barneratzea sakona dela. Bonapartek Azpeitia edota Zegama aldeko euskalkietako aditz iragankorretan *-gi-* erroa erabiltzen zela berretsi zuen. Hori dela eta, Irizarrek erdialdeko hizkeretako adizkiak jaso ditu bere lanean, sei eremu bereiziz: Az-peitia, Zegama, Tolosa, Hernani, Burunda eta Etxarri Aranatz eremuak.

Azpeitia inguruko eremuaren barruan honako herriak sartzen ditu beste hainbesteren artean (Irizar, 1991: 1094-1095):

(1)

<i>Herriak</i>	<i>Ahalera</i>
• <i>Elgoibar</i>	<i>Neike, leike</i>
• <i>Mendaro</i>	<i>Leiket, leike</i>
• <i>Mutriku (Art)</i>	<i>Leiket, neike</i>
• <i>Deba</i>	<i>Neike, leike</i>
• <i>Lastur (Deba)</i>	<i>Naike, leike</i>
• <i>Madariaga (Azkoitia)</i>	<i>Leitxeket, leike</i>
• <i>Azkoitia (Azk)</i>	<i>Daiket/ neike, daike</i>
• <i>Azkoitia (Art)</i>	<i>Leiket, leike</i>

Zegamako eremuan sartzen diren herriak beste askoren artean:

(2)

• <i>Legazpia</i>	<i>daiket, daike; deiket, deike</i>
• <i>Zumarraga</i>	<i>deiket, deike</i>
• <i>Gabiria</i>	<i>daiket, daike</i>
• <i>Ormaiztegi</i>	<i>daiket, daike</i>
• <i>Idiazabal</i>	<i>daiket, daike</i>
• <i>Ataun</i>	<i>deiket, deike</i>

Adibide hauek jartzen ditut, Azpeitia inguruko eta Zegama inguruko azpieuskalkiak direlako mendebaldeko ezaugarriak adierazten dituztenak. Tolosaldean -*gi*- erroaren erabilera oso urria da, zer esanik ez Hernani, Burunda eta Etxarri Aranatzan. Irizarren lanak beraz, mendebaldeari dagozkion formak erdialdean ere badirela baieztatzeko balio izan digu.

Azpeitia eremu horretan *neike,leike; leiket-leike; leiket,neike*, adizkien erabilera jaso dira. Azken horretan, a priori erabilera bera duten bi forma dauzkagu, alabaina, egon daitekeen txandakatzeari buruzko informazioa bilatzerakoan, honako hau dio Koldo Zuazok *Euskararen sendabelarrak* liburuan:

Nonahi ari dira sortzen adizki berriak. Gipuzkoa barrena, esate baterako, oso hedatuta daude *zidazun* ‘zenidan’, *ziozun* ‘zenion’ edo *genekigun* ‘genekien’ tankerakoak, eta Gipuzkoan zein Bizkaian entzun daitezke *leikegu* ‘geinke’, *leikezu* ‘zeinke’ gisakoak. Hobe litzateke lagunarteko hizkeran ere honelako berrikeriak zuzenduko balira. Hizkera jasoan, behinik behin, erabat itxi behar litzazieke atea. (Zuazo, 2000: 201).

Edota gramatikako gaiei buruz webguneetan diotena; esaterako, Arrasateko *mondraberri.eus* webgunean aurki daitekeen *Arrasateko euskaldunok hitz egiterakoan eta idazterakoan egiten ditugun oker ohikoenak*:

Ahalkera:

- Leiket (okerra), neike (zuzena)
- Leiketzu (okerra), zeike (zuzena)
- Leikegu (okerra), geike (zuzena)
- Leiketzue (okerra), zeikie (zuzena)
- Leike (zuzena)
- Leikie (zuzena)
- Nik hori egin ahal dot (okerra)
- Nik hori egin neike (zuzena)

Aipatutako adizkiak akats edota forma berri gisa aurkezten direnez, Deba Ibarreko hizkeren gramatika-liburuetan horrelako formak oinohar baten bitartez soilik aipatzen dira. Esate baterako, 2005eko *Eibarko euskara, gure hizkeretan doinu eta berbak* liburuan Sarasuak, Agirrebeñak eta Zenarruzabeitiak honako hau esaten dute:

“Badirudi beste paradigma berri bat ere hedatzen ari dela gazteen artean 3. pertsonako adizkiaren analogiaz edo sortutakoa. Paradigma berri honetan, 3. pertsonako adizkia oinarritzat hartu eta adizkiaren amaieran ezartzen dira pertsona-markak, era honetako adizkiak sortuz: *leiket, leikezu,*

leike... Belaunaldi berrien arten gero eta gehiago entzuten da, baina oraindik ere Debagoiengan baino leku txikiagoa du, eta Eibarren hitzun gazteen artean bakarrik entzuten da, sekula ere ez 50-60 urtetik gorako hitzunen artean.”(Sarasua, Agirrebeña, Zenarruzabeitia, 2005:231).

Aipamen hauexek adizki hauen erabilera noraino dagoen hedatuta eta horien bilakabidea bilatzera eramane naute. Eibarko hizkera jasotzen duen liburuak (2005) dio adizki mota hau gazteen artean soilik entzun daitekeela. Baina ni ez nago horren ziur. Hori dela eta, *ahotsak. eus*-era jo dut, Euskal Herri osoko ahozko ondarea eta herri hizkerak biltzea eta hedatzea da proiektu honen helburu nagusia, eta leku aproposa iruditut zait adizki hauen erabilera aztertzeko. Bertan jasotzen diren elkarrizketen artean honako adibideak daude: *Eskola kontuak* (2000) pasartean adin nagusiko eibartar bat ari da berbetan:

(3) “*Klaro, eske oin bi urtekin ta hiru urtekin ta hari ezin leikezue... Baiña orduan, ba, nik, pentseizu, zortzi urte ta ya zortzi urtera ezkeru... Bai, irakorten... dana ez, baiña bueno, pixkat ikessita jun giñan*”.

Kasu horretan aditza falta zaio, baina kontuan izan behar dugu ahozko testu bat dela eta, agian, hizlariak aditza esateko beharrik izan ez duela. Transkribapen osoa irakurtzen badugu, falta den aditza “eskatu” edo “exijitu” izan daiteke. Pasarteko hizlariak *leikezue* aditz laguntzailea erabili du; eta *hari* dionez Nor-Nori-Nork paradigmatkoa dela suposa daiteke. Alabaina, Eibarko hizkera jasotzen duen Sarasua et al.-en (2005) kasu horri dagokion adizkia begiratzen badugu, *zeinkixue* forma aurkituko dugu eta ez *leikezue*.

Gauza bera gertatzen da hurrengo pasartean, Arrasaten jasotako elkarrizketa batean, *euren garaiko eta gurasoen garaiko jolasak* (2005) izeneko pasartean, hirurogei bat urte dauzkaten bi hizlari ari dira hain artean berbetan:

(4) - “*Eta ze jolas izaten zian nesken arteko...?*
- *E: Hanka-koskoka...*
- *Hanka-koskoka esaten gauen.*
- *E: segun ze garaia zan.*
- *Karo, depende. Kanpuen ein leikezun ...*”

Bigarren adibide honetan ere gauza bera gertatzen da, *leikezun* forma darabil, baina Arrasateko hizkera jasotzen duen *Arrasateko euskara* (1999) liburuak *zeinkien* forma dakar forma egokitzat.

Bildutako agerraldi horiek ezin ditzakegu antzinakotzat hartu, baina pertsona nagusiek ere halako adizkiak darabiltela ikusteko balio izan du. Hortaz, ez dut uste horrelako adizkiak gazteen ahotan soilik entzun daitezkeenik, hain gazteak ez direnengan ere entzuten baitira.

Esandako guztiak hurrengo atala garatzera eramanez, hain zuzen, Deba ibarreko hainbat hizkera eta mendebaldeko hizkera orokorra biltzen dituzten liburuek txandakatzeko honi buruz zerbait esaten ote duten ikusi nahi izan dut.

2 Deba Ibarreko hizkerak Mendebaldeko euskalkiekin partekatzen dituzten adizkiak

Lan honen helburua adizki hauen erabilera zein den ikustea denez, Deba Ibarra osatzen duten hiru azpi-euskalkiren azterketa egingo dugu: Debagoieneko Arrasate (Elortza et al.-en *Arrasateko euskara*, 1999), Debaerdiko Eibar (Sarasua, Agirrebeña eta Zenarruza-beitiaren *Eibarko euskara, gure hizketaren doinu eta berbak*, 2005) eta Debabarreneko Elgoibar (Makazagaren *Elgoibarko ahozko euskara*, 2010). Horrezaz gain, mende-baldeko euskararen adizkiak ere hartu ditut kontuan (Labayru ikastegiak zuzendutako *Bizkai euskeraren jarraibide liburua*, 2001). Horrela, hiru hizkeren eta mendebaldeko euskara orokorraren artean aldaketa nabaririk balego, horiei buruz ere aritzeko. Bestalde ohartarazi behar da Nor eta Nor-Nork kasuetako orainaldiko formak gero eta gutxiago erabiltzen direla, ez bakarrik gaur egungo berbetan, baita tradizio idatzian ere. Orainaldiko formen (*naiteke, daiteke; daiket, daike...*) ordeztuz, forma hipotetikoak erabili izan dira eta erabiltzen dira (*neike, leike...*) (2005:231). Bizkaiera barruan nahiko zabaldua dagoen ordezkapena denez, alegiazko formak hartu ditut kontuan konparaketa honetan.

Honako ezaugarri hau gramatika-liburuetan ikus daitezkeen zerbait da, izan ere, gramatika-liburu bakoitzak modu desberdinean aipatzen ditu ahaleraren aldiak. Mendebaldeko euskara jasotzen duen liburuak orainaldia, lehenaldia eta hipotetikoa sailkatzen dituen bitartean, hizkeretan bi aldi aurkitzen dira, Eibarko gramatika-liburuan orainaldia eta lehenaldia; Arrasatekoan erreala-hipotetikoa eta lehenaldia eta Elgoibarko

gramatika-liburuan orainaldia eta lehenaldia, haatik, orainaldian sailkatutako adizkiak beste liburutako erreala-hipotetiko edo alegiazko adizkiekin egiten dute bat.

2.1 Elgoibar, Eibar, Arrasate eta mendebalde orokorraren adizki-taulak

2.1.1 NOR

	ELGOIBAR¹	EIBAR²	ARRASATE³	MENDEBALDEA
Ni	neike	Neike	Neike	Neinteke
Hura	leike (laike)	Leike	Leike	leiteke
Gu	geinke	Geinke	Gei(n)ke	Geintekez
Zu	zeinke	Zeinke	Zei(n)ke	Zeintekez
zuek	zeinkie	Zeinkie	Zei(n)kie	Zeintekeze
haiek	Leikez	leikez	leikie	leitekez

2.1.2 NOR-NORI

ELGOIBAR, EIBAR, ARRASATE			MENDEBALDEA	
NERI	leikitt	Leikidaz	Lekit/ lekikit	Lekikidaz/ lekidaz
		Leikitt (Ar)		
HARI	leikixo	Leikixoz (Elg-Eib)	Lekikio/ lekio	Lekikioz/lekioz
		Leikixo (Ar)		
GURI	leikigu	Leikiguz (Elg-Eib)	Lekikigu/ lekigu	Lekikiguz/ lekiguz
		Leikigu (Ar)		
ZURI	leikizu	Leikizuz (Elg- Eib)	Lekikizu/ lekizu	Lekikizuz/ lekizuz
		Leikitzu (Ar)		
ZUERI	leikizue	Leikizuez (Elg- Eib)	Lekikizue/ lekizue	Lekikizuez/ lekizuez
		Leikitzue (Ar)		
HAIEI	leikixue	Leikixuez (Elg- Eib)	Lekikie / lekie	Lekikiez/ lekiez
		Leikixue (Ar)		

Nor- Nori saileko adizkiak ez dira sarri entzuten kaleko jardunean gaur egun, eta 3. pertsoneri dagozkienak dira gehien erabiltzen direnak; baina aipatu bezala, erabilera oso murrizta da.

¹ Elgoibarko Ahozko euskara, 2010: 207-211-217-227

² Eibarko euskara, gure hizketaren doinu eta berbak, 2005: 269-275-281-292

³ Arrasateko euskara, 1999: 103-108-117-126

Aldaerei dagokienez, *nentekio, leitekkit, leitekio* bezalako adizkiak mendebaldeko euskaran *nenkikio, leiket edo lekikit, lekikeo edo lekikio* dira. Formarik klasikoenak *lekiket, lekikeo* ereduak dira; halere, asimilazio baten ondorioz datiboaren osteko *-ke>-ki* bihurtzean, *lekikit, lekikio* bezalako adizkiak sortu dira. (Labayru ikastegia, 2001: 314). Hizkeretan, ordea, ez da ahalezko *-ke* markaren aurrean agertzen den *-ki-* datibo marka erabiltzen: *neinkixo, leikixo*.

2.1.3 NOR-NORK

ELGOIBAR, EIBAR, ARRASATE						
	NIK	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HAI EK
NI		Nei(n)ke		Nei(n)kezu	Nei(n)kezue	Nei(n)kie
HURA	Neike	Leike	Gei(n)ke	Ze(i)n)ke	Ze(i)n)kie	leikie
GU		Geinkez (Elg- Eib)		Geinkezuz (Elg- Eib)	Geinkezue (Elg- Eib)	Geinkiez (Elg- Eib)
		Geike (Ar)		Geiketzu (Ar)	Geiketzue (Ar)	Geikie (Ar)
ZU	Zeinkedaz (Elg- Eib)	Zeinkez (Elg- Eib)	Zeinkeguz (Elg- Eib)			Zeinkiez (Elg- Eib)
	Zeiket (Ar)	Zeike (Ar)	Zeikegu (Ar)			Zeikie (Ar)
ZUEK	Zeinkiedaz (Elg- Eib)	Zeinkiez (Elg- Eib)	Zeinkieguz (Elg- Eib)			Zeinkieze (Elg- Eib)
	Zeikiet (Ar)	Zeikie (Ar)	Zeikegu (Ar)			Zeikie (Ar)
HAI EK	Neikez (Elg- Eib)	Leikez (Elg- Eib)	Geinkez (Elg- Eib)	Zeinkez (Elg- Eib)	Zeinkiez (Elg- Eib)	Leikiez (Elg- Eib)
	Neike (Ar)	Leike (Ar)	Geike (Ar)	Zeike (Ar)	Zeikie (Ar)	Leikie (Ar)

MENDEBALDEKO ADIZKI OROKORRAK						
	NIK	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HAI EK
NI		neinke		neinkezu	neinkezue	neinkie
HURA	Nei	Lei	Geinke	Zeinke	Zeinke	Leie
	Neike	leike	Ginei	zinei	zieni	leikie
GU		geinkez		geinkezuz	geinkezue	geinkiez
ZU	Zeinkedaz	zeinkez	Zeinkeguz			zeinkiez
ZUEK	Zeinkiedaz	zeinkiez	Zeinkieguz			zeinkieez
HAI EK	Neiz	leiz	Geinkez	Zeinkez	Zeinkiez	Leiez
	Neikez	leikez	Gineiz	zineiz	zineiez	leikiez

Ahalerazko kasuen barruan gehien erabiltzen direnak dira, baina, batez ere, objektua hirugarren paradigmakekoak diren kasuetan erabili ohi dira (Makazaga, 2010:205).

2.1.4 NOR-NORI-NORK

ELGOIBAR, EIBAR, ARRASATE						
	NIK	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HAIEK
NERI		leikitt		Ze(n)kitt	Ze(n)kitte	leikitte
HARI	neikixo	leikixo	Gei(n)kixo	Ze(n)kixo	Ze(n)kixue	leikixue
GURI		Leikigu		Ze(n)kigu	Ze(n)kigue	leikigue
ZURI	neikizue	leikizu	Gei(n)kizu			leikizue
ZUERI	neikizue	leikizue	Gei(n)kizue			leikizue
HAIEI	neikixue	leikixue	Gei(n)kixue	Ze(n)kixue	Ze(n)kixue	leikixue

MENDEBALDEKO ADIZKI OROKORRAK						
	NIK	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HAIEK
NIRI		Leit		Zeinkit	zeinkide	Leide
		leikit		zineit	Zineide	leikide
HARI	Neio	Leio	Geinkio	Zeinkio	Zeinkioe	Leioe
	neikio	Leikio	gineio	zineoi	zineioe	Leikioe
GURI		Leigu		Zeinkioe	Zeinkigue	Leigue
		Leikigu		Zineioe	zineigue	Leikigue
ZURI	Neizu	Leizu	Geinkizu			Leizue
	neikizu	leikizu	gineizu			Leikizue
ZUERI	Neizue	Leizue	Geinkizue			Leizuee
	neikizue	leikizue	Gineizue			leikizuee
HAIEI	Neioe	Leioe	Geinkioe	Zeinkioe	Zeinkiee	leiee
	neikioe	leikioe	gineioe	zineioe	zineie	Leikiee

Mendebaldeko euskararen kasuan, 3. pertsona singularreko datibo marka *-(k)i-o* da (*geinkio*, *zeinkio*), eta pluralekoa *-(k)i-oe* (*geinkioe*, *zeinkioe*) den arren, leku batzuetan *kioe* > *kie* bilakatu da, horrela: *neikie*, *geinkie* bezalako adizkiak sortu dira. (Labayru

ikastegia, 2001: 317). Horrezaz gain, mendebaldeko euskarak ahalaren *-ke* morfemadun adizkiak eta gabeak onartzen ditu: *zeinkioe* eta *zineioe*.

Funtsean, mendebaldeko euskara orokorraren eta Deba Ibarreko euskalkien formen artean ateratzen ditudan bereizgarri nagusiak bi dira. Alde batetik, *Bizkai euskeraren jarraibide liburuak *edin* eta *egin* erroak bereizten ditu, hau da, NOR motako aditzak **edin* erroatik eratorriak (*neinteke, nenkikio...*) direla dio, eta NORK motakoak *egin* erroatik eratorritakoak (*geinke, neikeo...*) (2001: 284). Haatik, hizkeretan Nor eta Nor-Nork kasuetako *neike, zeinke* adizkiek ez dute forma-desberdintasunik erakusten, forma bera erabiltzen da aditz iragankor zein iragangaitzetarako. Hori horrela, desberdintasuna azken atzizkietan dago. Hasiera batean, *egin* erroko *negi* edo *le(g)i* bezalako laguntzaileek ahalera adierazteko gaitasuna zuten baina, XVI. mendetik aurrera *da(g)i, negi > da(g)ike, ne(g)ike* aldaketa martxan jarri zen. Azken aldaketa horretatik *-te* eta *-ke* morfemak dauzkagu, *-te* atzizkia laguntzaile iragangaitzetan erabiltzen zen eta *-ke* berriz, laguntzaile iragankorretan: **n-en-di-te > *nedinte > neinde* vs. *negi > ne(g)ike*. (Ulibarri,2015:185). Egun berriz, *-teke* atzizki pleonastikoa darabilgu adizki iragangaitzetan baina hizkeretan ikus daitekeen bezala, badirudi *-te* atzizkiaren erabilera galdu egin dela.

Ateratako hurrengo ezaugarria sinkretismoa da, hau da, forma bera duten baina pertsona- komunztadura desberdinei dagozkien aditz formak ageri dira. Nor eta Nor-Nork kasuen artean baita Nor-Nori eta Nor-Nori-Nork kasuen artean ere:

(5)

- | | | |
|----|--|--|
| a. | <i>(Ni) aita(ren)gana</i>
(ni-ABS) | <i>joan n-ei-ke</i> (neike)
1.ABS-*edin-MOD |
| b. | <i>Mikelek ni kotxean</i>
(hark-ERG) (ni-ABS) | <i>eraman n-ei-ke</i> (neike)
1.ABS-egin-MOD |
| c. | <i>Nik Mikel kotxean</i>
(Nik-ERG) (hura-ABS) | <i>eraman n-ei-ke</i> (neike)
1.ERG-egin-MOD |
| d. | <i>Mikel zuei</i>
(hura-ABS) (zuei-DAT) | <i>gerturatu l-ei-ki-zue</i> (leikizue)
3. ABS-*edin-MOD-2. DAT |
| e. | <i>Mikelek zuei gatza</i>
(hark-ERG) (zuei-DAT) (hura- ABS) | <i>utzi l-ei-ki-zue</i> (leikizue)
3.ERG-egin-MOD-2.DAT |

Besteak beste, hirugarren pertsonaren markak ez dira adizkien komunztaduran ageri. Horregatik, adibideek adierazten dute 3. pertsonarekin eratzen diren adizkien kasuan sinkretismoa dagoela.

Amaitzeko adierazi behar da txandakatzearen inguruko aipamenak urriak direla, esan dezakegu orain arte erabilitako bibliografia guztiek aipatzen dutela badela *leike*-ren gainean osaturiko adizki mota berri bat, baina horrezaz gain ezer gutxi aurki daiteke.

Laburbilduz, atal honetan ahaleraren ahozko erabilera aurkeztu dut, horretarako Deba Ibarreko hiru hizkeren eta mendebaldeko euskara orokorreko adizkiak deskribatzen dituen gramatika liburuak erabili ditut. Bestetik, *ahotsak.eus* webgunea erabili dut, *zeinke* bezalako formez aparte, erabilera bera duten *leikezu* bezalako laguntzaileak daudela ikusteko eta gainera, “gazteriak” soilik erabiltzen dituzten formak direla esan arren, edadeko jendeak ere darabiltzala ikusteko balio izan digu. Horrezaz gain, hizkerek batzen dituzten adizkien erroak berdinak badirudite ere, jatorrian bi erro direla ikusi dugu eta baita ere adizki batzuen artean (bereziki 3. paradigmarekin lotura duten adizkien artean) sinkretismoa nagusi dela ikusi dugu.

Honen ondoren, ‘*leikezu*’ eta ‘*zeinke*’ bezalako formen artean egon daitekeen txanda-katzea noiztik lekukotuta dagoen begiratu nahi izan dut, eta hori da hurrengo atalean erakutsiko dudana, hots, noiztik agertzen zaizkigun ahalerazko adizkien forma hauek testu idatzietan.

3 Txandakatzearen antzintasuna testu idatzietan

Adizkien erabilera aztertu ahal izateko, *armiarma.com*-ekoek eraturako *Euskal Klasikoen Corpus*-a (*EKC*) erabili dut batik bat⁴. XVI. mendean hasi eta 1975. urtera arteko 496 liburu jasotzen ditu. Gainera, agerraldi bakoitza zein euskalkitan dagoen, zein generotan erabilia den, zein garaitan eta zein autorek erabili duen adierazten du⁵. Haatik, ezaguna da transkripzio errakuntzak aurkitu direla zenbait testutan, eta hori saihesteko asmoa-rekin, Lazarragaren kasuan *Monumenta Linguae Vasconum* iker taldeak eginiko edizio kritikoa erabili dut, beste autoreen agerraldiak, ostera, *Klasikoen Gordailuak* dauzkan edizioetatik jaso ditut, mendebaldeko jatorrizko hainbat testu ez baitago

⁴ *Euskal Klasikoen Corpusa*, Euskara Institutuaren webgunean aurki daitekeen bilatzailea da. XVI. mendean hasi eta 1975. urtera arteko corpus osatuenetarikoa da. Sarean eskuragarri dago: <https://www.ehu.eus/ehg/kc/>

⁵ XX.mendeko adizkien erabilera, gehienetan, gutxitu egin dela ikusiko dugu. Edozelan ere, kontuan izan behar dugu Euskal Klasikoen Gordailuak ez dituela mende osoko testuak hartzen (1975).

eskuragarri, beraz, baliabide erosoak izan daitezkeela deritzot aztertu beharreko adizkiak behatu ahal izateko, amaitzeko, aipatu beharra dago, *Klasikoen Gordailutik* hartutako adibideak gaur egungo idazkeran transkribatuak daudela.

3.1 1.pertsona singularra: *leiket* - *neike(z)*

Txandakatzearen *leiket* forma 6 aldiz ageri da, Lazarraga (1567), Pedro Astarloa (1818), Jose Antonio Uriarte (1850) eta Felipe Arrese Beitia (1900 eta 1902) autoreen eskutik. *Neike* adizkiaren emaitzak, berriz, ugariagoak dira 136 agerraldirekin. XVI. mendean Lazarragaren agerraldiak dauzkagu eta harrezkero, XVIII. mendean 9 agerraldi, XIX. mendean 76 eta XX. mendean 44 agerraldi biltzen dira. Testu bizkaitarretan aurki daitezkeen agerraldiez aparte, 17 gipuzkeraz, 4 nafarreraz eta 2 zubereraz idatzitakoak ditugu Xaho eta Intxauspereen eskutik.

Bestalde, hogeita zortzi egile dira *neike* laguntzailea erabili dutenak: Lazarraga (1567), Jose Otxoa Arin (1713), Juan Antonio Moguel (1802), Pedro Astarloa (1818), Añibarro (1802-1821; c.1820; c.1804-1821), Juan Mateo Zabala (1816-1833), Xaho (1834-1852), Intxauspe (1857), Uriarte (1850;1857-1866;1858-1859), Jean Baptiste Arxu (1865-1869), Azkue (1897), Felipe Arrese Beitia (1880-1905; 1902;1900), Ementerio Arrese (1913), Kirikiño (1918), Labaien (1921;1933;1935), Lauaxeta (1932), Otxolua (1932), Errose Bustintza (1950-1952), Jon Andoni Irazusta (1950) eta Salaberri (1964).

Lan honen orrialde-kopuruaren mugak aintzat harturik, ezin ditut agerraldi guztien etsenpluak eman. Hortaz, garai desberdinetako agerraldiak aukeratzeaz gain, *leiket* eta *neike* bi formak dituzten autoreen agerraldiak aukeratu ditut aditz laguntzaileen arteko konparaketa egin ahal izateko.

3.1.1 LAZARRAGA⁶ (1567)

(6) *Eskuizkribua* (1567), “*aide andioc bialdu deustae...*” (A24) hasiera duen poema:

“*ene aguinoc ezin jan leie / aragui errebagea;/ Estomagoau galdu leiquet / Bianda probaçaqueac.*”^[Nor-Nork]

⁶ Lazarragari dagozkion adibideak <http://lazarraga.com> webgunetik ateratakoak dira, *Monumenta Linguae Vasconum* ikerketa taldeak Lazarragaren *Eskuizkribuari* buruzko azterketa dauka eskuragai. Adibideetan zehar A19, A21... bezalakoak ikus daitezke, agerraldiak zein ataletan dauden adierazten dute.

Estrofa honetan *jan leie* eta *galdu leiquet* adizkiak dira interesatzen dutenak. Aitzitik, poema honetan edizio kritikoak ez du adizki hauei buruzko argibiderik ematen, halere, nire ustez, alegiazko ahalera adierazten dute: ‘jan lezakete’ eta ‘gal nezake’.

Horrezaz gain, ‘*leie*’ eta ‘*leiquet*’ adizkiak ditugun heinean, aipatu beharreko beste ezaugarria *-ke-* morfema da. Badirudi ahalera adierazteaz gain, zerbait gehiago adierazten zuela.

(7) *Eskuizkribua* (1567), “*aitac ezcondu ezpanagui...*” (A19) poeman ageri zaigu:

“*Oy nolaco atrenpea /Irira darabildan ancaetan! /Banequique goruetan /Gonea-requin atorrea;/ **Saldu neique** gorguerea, /Aregaz ezer al banegui.*” [Nor-Nork]

Kasu honetan, Lazarragaren edizio kritikoak *saldu neique* baldintzaren ondorioa dela adierazten du, eta ez ahalera: ‘salduko nuke’, alegia. Hurrengo esaldian, *aregaz ezer al banegui* daukagu, eta ematen dioten interpretazioa ‘egin ahalko banu’ da.

(8) *Eskuizkribua* (1567), ‘*Aide andioc bidaldu deustae...*’ (A24) lerroarekin hasten den poemari dagokio:

“*eguin deustan mesedeac / Servidu jaguin artean, / Cegaiti **nei traspasadu** /Amorearen leguea.*” [Nor-Nork]

Edizio kritikoan ageri den adizki honen interpretazioa alegiazko ahalerarena da: ‘hautsi nezake’.

(9) *Eskuizkribua* (1567), “*Artzain-liburua*”(AL):

a. “*neure erriari ichiric, nator aen esque, eta, aynbat aseguin artu dot nun dagoan icasiz, eze, munduan direan riqueza guztiac emun baleustae bere, ezin gueiago **artu ney.***” [Nor-Nork]

9.a adibidean *emun baleustae* daukagu zeinetan Lazarragaren edizio kritikoan ‘eman balizkidate’ moduan interpretatu den. Alabaina, adi begiraturaz gero, kontzesio perpaus baten aurrean gaudela ikusiko dugu

b. “*-Silvia, quen aquit orrean, cergautu nic ecin **ançitu neydi** aynbat denpora on derechadan gaucea.*” [Nor-Nork]

9.b adibidea balio potentziala duen **-idi-* erroko adizkia dela dio edizio kritikoak. Interpretazioa: ‘ezin ahantz nezake’, ‘ezin izango nuke ahaztu’.

Lazarragaren agerraldietatik ateratzen ditudan ezaugarriak honakoak dira:

a) Agerraldi guztiek Nor-Nork erregimena daukate, horrezaz gain, ahalera adierazteaz gain, Lazarragak baldintzaren ondorio gisa ere forma bera + *-ke-* morfema erabili duela ikusi dugu, nahiz eta agerraldi bakarrean ikusi. Dena dela, Lazarragak **edun* laguntzailearen *neunque* adizkia darabil baldintzaren ondorioa adierazteko.

“*nai ez neunque, / mundu guztiagaitirren, / çuregaz ene secretoa / descubri lidin bapere*”

b) Lazarragaren edizio kritikotik bildu ditugun adizki guztiei ‘nezake’ interpretazioa eman zaie: ‘*galdu leiquet*’ (gal nezake), ‘*nei traspasadu*’ (hauts nezake) eta ‘*ançitu neydi*’ (ezin ahantz nezake). Azken adibidea badakigu *-*idi-* errotik eratorria dela, baina besteak *egin* errotik eratorriak ote dira? Baliteke hala izatea, izan ere, adizki guztiak balio trantsitiboa daukate, alabaina bi adizkiak *leiquet* eta *nei(ke)* modu berean erabiltzen direla ikusi dugu, beraz, baliteke txandakatze baten aurrean egotea.

c) Derrigorrez aipatu beharreko beste ezaugarria *-ke* atzizkiaren erabilera da. Argibide gisa, Zabalaren *El Verbo Regular Vascongado del dialecto Vizcaino* (1848) liburuak dakarren ahaleraren sailkapena ekarri dut. Sailkapen honetan, Zabalak hiru aldi banatzen ditu: orainaldia, lehenaldia eta alegiazkoa baina aldi bakoitzeko bi aspektu mota bereizten dira. Adibidez, orainaldian, orainaldi fisikoa (*bete dai, daite*) eta etorkizun hurbila edo burutua (*bete daike, daiket*) daude. Aldi hipotetikoan, orainaldi burutugabea (*lei, nei, leite, neinde*) eta etorkizun burutugabea (*leike, neike, leiteke, neinteke*) eta lehenaldian ere lehenaldi burutugabea (*leian, neian, leitean*) eta lehenaldi urruna (*leikean, neikean, leitekean*) bereizten ditu. Hortaz, zerbait gertatzeko posibilitatea hurbilagoa bada *-ke* morfema gabeko adizkiak aurkituko genituzke *dai, daite, lei, nei, leite* eta posibilitatea urruna bada *daike, daiteke, leike, neike, leiteke* bezalakoak. (Zabala, 1848: 31-32).

3.1.2 PEDRO ASTARLOA (1818)

- (10) *Urteko domeka gustijetarako berbaldi ikasbidekuak (1818), “XXX. Berbaldija”:*
“Geijagotan enzuten oi dira beste blasfemija modu batzuk; Kristoren buruba, Birjiniaren sabela, San Pedroren kalbia, Jaungoikuak berak bere ezin galazo leiket, au edo bestia egiten” [Nor-Nori- Nork]
- (11) *Urteko domeka gustijetarako berbaldi ikasbidekuak (II) (1818), “XXXIX. BERBALDIJA”:*

“*Arzen dituzala demoninuak gizonak pekatu onetan, ezin isilian itxi neike.*” [Nor-Nork]

(12) *Urteko domeka gustijetarako berbaldi ikasbidekuak (II) (1818), “JUAN TXITO ARGITU; EDO ILUSTRE DON FRANCISCO LONGA; ETA ANCHIA”:*

a. “Zelan nik aituten **emon neikez** Franzesakaz euki dituzan errijeta guztijak, il deutsezan gizonak, kendu deutsezan ondasunak, eta egin deutsezan kaltiak?”

[Nor-Nork]

b. “Alanbere, ezin esan bago **itxi neike** Urduñoko atxeko zelatakadia.” [Nor-Nork]

Pedro Astarloak erabiltzen dituen ‘*neike(z)*’ forma guztiak Nor-Nork erregimena dute. Bestetik, *leiket* formarekin ageri den ‘*ezin galazo leiket*’ Nor-Nori-Nork erregimenari egiten dio erreferentzia. Gaur egungo ikuspegitik begiratuko bagenu, aztertutako iturriek egokitzen emango lukete ‘Hark-niri-zerbait’: *leikit* adizkia baina Astarloaren adizkira bagoaz datiboko *-i-* marka falta zaio. Beraz, ezin esan dezaket bi adizkiak baliokideak direnik.

3.1.3 JOSE ANTONIO URIARTE (1850)

(13) *Marijaren illa (1850), “Bostgarren eguna”:*

“Ondo igaroten dodan une edo instante bakotxak, **geitu leiket** zeruan glorijako zapalda, gradu eta malla bat.” [Nor-Nork]

(14) *Marijaren illa (1850), “Bostgarren eguna”:*

a. “Egunoro izentauaz denpora puska bat errezetako, Jaungoikuagaz berba egiteko, mezia entzuteko, liburu on bat irakurteko, **urrindu neike** pekatutik ete jaritxi salbaziñoia” [Nor]

b. “Denpora laburra, eta sempora bildurgarrija. Edozein une edo instantetan pekatu **egin neike., ill neiteke, ta kondenau neiteke**” [Nor-Nork]; [Nor]

Uriartek Nor eta Nor-Nork arteko bereizketa egiten du erabiltzen dituen ahalerazko formetan: ‘*geitu leiket*’ (gehitu nezake), ‘*pekatu egin neike*’ (pekatu egin nezake), ‘*ill neiteke*’, ‘*kondenadu neiteke*’ (hil / kondenatu ninteke) baina ‘*urrindu neike*’ (urrindu ninteke) ere badu. Lehenengo testuetan *-te* morfemak *-ke* morfemaren erabilera edo funtzio bera adierazten zuen, kontua da *-te* atzizkia laguntzaile intrantsitiboekin erabiltzen zela eta *-ke*, berriz, trantsitiboekin. Baina, *-te* fosilduta ageri da lehen testuetatik, horre-gatik, *-ke* morfema *-te* dun adizkietara analogiaren bidez hedatu da *-teke* pleonastikoa sortuz (Ulibarri, 2015:185).

Uriartek *-teke* atzizkidunak eta *-te-* gabeko adizkiak dauzka Nor erregimena adierazteko. Honela bada, bi paradigmetako adizkiek itxura bera har dezaketela ikusi

dugu. Amaitzeko esan beharra dago, hemen ere Lazarragaren Eskuizkribuan bezala, txandakatze beraren existentzia dagoela: ‘*geitu leiket*’ eta ‘*pekatu egin neike*’ adizkien artean.

3.1.4 FELIPE ARRESE BEITIA (1900-1902)

(15) *Ama euskeriaren liburu kantaria (1900), “Anjela”:*

a. “Agaitik, zeñek **osatu leiket** bere faltea? Zeñek ornidu alboan itxi eustan *utsa?*” [Nor-Nori-Nork]

b. “Nok **lagun egiñ leiket** urteten troka aiñ zakon, Sastraka baño besterik ez dan *onetatik?*” [Nor-Nori-Nork]

(16) *Asti-orduetako bertsozko lanak (1902), “Munduko goraberak”:*

“**Gertau leiteke**, ta kantaz ezin nasaitzea; /Jausi arren nik, kanturik **ezin neike laga**, / Naiz da negarrez itxi egiak esan baga.” [Nor- Nork]

Adibideotan Nor-Nori-Nork-eko paradigmari egiten dio erreferentzia ‘*leiket*’ adizkiak, eta ‘*neike*’ adizkiak berriz, Nor-Nork-eko paradigmari. Hortaz, ezin genezake esan txan-dakaterik dagoenik bi adizkien artean. Bestalde, Arresek ere **edin* laguntzailearen *-teke* atzizkidun adibide bat dauka, beraz, hasiera batean adizkien arteko bereizketa egiten duela dirudi.

3.2 2. pertsona singularra: *leikezu(z)-zeinke(z)*

Leikezu forma corpusean 18 aldiz agertzen den bitartean, *zeinke* forma 40 aldiz ageri da. Garaiei dagokienez, *leikezuren* 15 agerraldi XIX. mendearen lehen erdikoak dira, agerraldi bakarra daukagu XVIII. mendekoa eta besteak ondorengo garaietan jasotakoak dira. *Zeinke* adizkiaren 3 agerraldi XVIII. mendekoa dira, 10 XIX. mendekoa eta XX. mendekoa 27, hain zuzen. Amaitzeko, *leikezu* aditz laguntzailea darabilten autoreak bost dira: Juan Antonio Mogel (1802), Añibarro (1802;1821), Juan Mateo Zabala (1816-1833), Arrese Beitia (1880-1905; 1999) eta Kandido Basabe (1914). Eta *zeinke* forma darabiltenak, berriz, 27 dira: Juan Antonio Moguel (1802), Pedro Astarloa (1818), Juan Mateo Zabala (1816-1833), Domingo Agirre (1898; 1899; 1898-1916;1906;1912), J.L. Zutagape (1899), Felipe Arrese Beitia (1902), Kandido Basabe (1914), Batxi (1914-1916), Kirikiño (1912-1928), Otxolua (132), Paulo Zamarripa (1927; 1930) eta Lauaxeta (1932; 1931-1935; 1982).

Adizki guztiekin bezala, forma bat zein bestea darabilten autoreak hautatu ditut.

3.2.1 JUAN MATEO ZABALA (1816-1833)

- (17) *Sermoiak I* (1816-1833,1996), “*Barikuguren arratsaldeko ereskerakoa*”:
“*Ezin esan leikezu mesederik egin deutsula, bada beti egin deutsu al dagian gatx guztia*” [Nor-Nori-Nork]
- (18) *Sermoiak II* (1816-1833, 2000), “*Ondo konfesetako bear dan propositu edo gogoaren ganeko berba-aldia*”:
“*Orregaitik ezin konfesoreak mesede andiagorik egin leikezu absolbiziñoa ukatutea baño: eta egin leikezun gatx eta kalterik andiena da absolbiete.*” [Nor-Nori-Nork]
- (19) *Sermoiak I* (1816-1833; 1996), “*Eriotza ganeko sermoia*”:
“*Poztu zeinkez andra Birjina Mariaren ontasun ta biotz bigunak? Lotsaren lotsaz egongo zara bearbada, ikusirik eztozula zeure bizi guztian ezerbere egin beragaitik.*” [Nor- Nork]
- (20) *Sermoiak II* (1816-1833,2000), “*Biraoaren ganeko ikas bidea*”:
“*yaurt-egingo bazeuntso bateri balasu bat, eskusadu zendukez eriotza atatik bertatik damutuak? Edo esan zeinke: eztot nik eriotza a egin, ze bertatik damutu yat.*” [Nor- Nork]

3.2.2 JUAN ANTONIO MOGUEL (1802,1881)

- (21) *Peru Abarka* (1802,1881), “*Dialogo Primero*”:
a. “*orain adorerik beso ta oñetan euki ezarren, orrelanguak, edo bere semiak emon leikezu makillaka galanta, ta buruba ausita itxi.*” [Nor-Nori-Nork]
b. “*Nok ikusi zeinkezan koltzagintza, arriyak landuten, soloko biarretan!*” [Nor-Nork]
c. “*Dakidana da, urte geijago iragoten ditubela ikasten gaiso osatutiak dakazan zeregiñak, ta guzurra ezpada, enzun dot, euren mendian egon biar dozubela zuk ta zu languak; ta ezin odolik atera zeinkeela euren baidurija baga.*” [Nor-Nork]

3.2.3 KANDIDO BASABE (1914)

- (22) *Andra Mariaren ezkutua* (1914), “*Andra- Mariaren ezkutua*”:
“*zure zainpian ipinten dan gauzarik, eztozu galtzen itxjko; altsua zara, ta ezin iñok gatxik egin leikezu, ez arrapau eskuetan daukazunik.*” [Nor-Nori-Nork]
- (23) *Andra-Mariaren ezkutua* (1914), “*Andra- Mariaren ezkutua*”:

“*Andra-Mariak, zerutik egiten deutzun guztiari, esan: Amen, onan izan bedi. Gauza oberik ezin egin zeinke oindiok.*” [Nor-Nork]

Autore guztiek erabilera bera erakusten dute adizki hauei dagokienez, Nor-Nork erregimenean *zeinke* forma eta Nor-Nori-Nork paradigmatari dagokionez, *leikezu* forma. Bestalde, aipatzekoa da Moguelek bereizi egiten dituela *zeinke* eta *zeinkee* adizkiak, beraz, orokorrean esan dezaket adizki hauetan ez dagoela txandakatzerik ezta sinkretismoaren zantzurik ere.

3.3 3. pertsona singularra: *lei(z)-leike(z)*

Leike(z) forma 544 agerralditan biltzen da, horietako 394 bizkaieraz, 71 gipuzkeraz, 72 nafarreraz eta 3 goi-nafarreraz aurkitzen dira. Adizki bera baina *-ke* gabe begiraturaz gero, 463 aldiz dago zeinetan 1 erronkarieraz, 28 gipuzkeraz, 3 goi-nafarreraz eta 7 nafarreraz lekukotzen diren eta *leiteke* forma, berriz, 460 aldiz biltzen da, 5 gipuzkerazko, 9 lapurterazko eta bakarra erronkarierazko testuetan. Orain arte behatutako adizkien artean, gehien zabaldu edo hedatu den adizkia da. Gainera, agerraldi gehien dauzkan forma da alde handiz. Beraz, honek iradoki dezake adizki honen erabilera askoz ugariago zela besteekin konparatuta.

Guztira berrogeita hiru egile dira aditz forma hauek darabiltzatenak: Lazarraga (1567), Jose Otxoa Arin (1713), Peña Floridako kondea (1764), Kardaberaz (1762;1764), Joakin Lizarraga (1771-1800; 1793-1813; c.1793;1893-1821), Juan Antonio Moguel (1803, XVIII. mendea), Pedro Astarloa (1818), Juan Antonio Zabala (1816-1833), Juan Ignacio Iztueta (1847; c.1845), Jose Antoni Uriarte (1857-1866; 1850), Klaudio Otaegi (1863-1867; c.1867), Jose Ignacio Arana (1870), Azkue (1890; 1895;1897), Ramon Artola (XIX. mendea), Marzelino Soroa (XIX. mendea), Andres Iturzaeta (1899), Felipe Arrese Beitia (1900;1902;1885-1905), Domingo Agirre (1898-1916; 1898; 1899;1906;1912), Pedro Otaño (1895;1900;1904;1907;1895-1910), Jose Manuel Etxeita (1909;1910;1913), Ementerio Arrese (1913), Arruti (1913-1919), Kandido Basabe (1914), Batxi (1914-1916), Bingen Aizkibel (1917), Federiko Belaustegigoitia (1919), Gabriel Manterola (1921), Fermin Imaz (1908-1927), Orixe (1929), Jaurtarkol (1929), Kirikiño (1918;1913-1928;1930) Labaien (1921; 1933;1935;1955), Lauaxeta (1931-1935; 1932), Jean Bautista Eguzkitza (1935), Juan Iruetagoiena (1921-1957), Gurbindo (1930-1936), Paulo Zamarripa (1930;1935), Otxolua (1932), Mendi Laueta (1937), Jon Andoni Irazusta (1950), Jon Mirande (1951-1962;1951-1963;1950-1966) eta Sebastian Salaberria (1964).

3.3.1 LAZARRAGA (1567)

(24) *Eskuizkribua (1567), “Artzain liburua”(AL):*

- a. “*Silvero gueratu cidin baco chic eta ain consuelo guchigaz nola inorc **pensadu ecin leian***” [Nor-Nork]
- b. “***apartadu aleian***” [Nor-Nork]

‘*Apartadu al leian*’, ‘apartadu ahal lezan’ interpretatzen du, potentzial hipotetiko forma bat balitz bezala.

- c. “*ece ecin **contadu al leidi** guiçonac gurearren bere;*” [Nor-Nork]

Edizio kritikoak ez du adizki honen interpretazioa ematen, ostera, Lazarragak *-*idi*- erroa erabili duela adierazten du. Aipatzekoa da, perifrasi modura adierazten diren adizkiak mendebaldeko testuetan soilik lekukotzen direla: [partizipio+ *-*idi*-] perifrasi. (Bilbao et al., 2010).

(25) *Eskuizkribua (1567), “Un tratado de lo que berdaderamente acontescerá antes y el día del temeroso juicio”(A26)* izenarekin ezagutzen den poeman aurkitzen da:

“*Nic ez neyque / A leguiala consejadu, / Cerren **leyque** / Oyta bertati **condenadu**.*”

[Nor]

Hasierako bi lerroen interpretazioa: “Nik ez nuke aholkatuko hori (arrimatzea) egin lezala”. Bigarren zatiaren interpretaziorik ez du egiten, halere nire ustez, ‘Zeren berehala kondena(tua izan) daiteke’ izan daitekeela deritzot, aditz inpersonala erabili duela esango nuke.

(26) *Eskuizkribua (1567), “Dichabaguean joan ninçan...” (A25):*

“*Bere beguiac eraçala negarretan, guiçon onau baegoan cer **leiquean pensaetan**.*” [Nor-Nork]

Lazarragaren agerraldietan hiru adizki ditugu, ‘*pensadu ecin leian*’, ‘*apartadu aleian*’ ondoren, ‘*contadu al leidi*’ daukagu eta amaitzeko, ‘*leique*’ forma dutenak ‘*leyque oyta bertati condenadu*’ eta ‘*cer leiquean pesaetan*’. Ahalera adierazten duten adizkiak izateaz gain, Nor-Nork erregimena duten forma desberdinetako adizkiak erabiltzen ditu. Bestalde esan beharra dago, ‘*leyque*’ forma duen lehenego adibideak Nor erregimena daukala, aditz inpersonala baitauka aurrean. Lazarrak, beraz, forma bera erabiltzen du paradigma bat zein bestean.

Honez gain, *-ke* atzizkiaren erabilera aipatu behar da, ‘*leian*’, ‘*leiquean*’ eta ‘*leique*’ biltzen baititu. Hemen Zabalaren sailkapena (1848) gurera ekartzea egoki legokeela uste dut, Lazarragak antzekoa edo sailkapen bera erabili zuela uste baitut. Adibide gisa, Lazarragaren edizio kritikoa begiratzen badugu, ‘*leian*’ adizkia potentzial hipotetiko bezala sailkatuta dago. Zabalaren sailkapenera bagoaz, adizki bera lehenaldi hurbilean kokatzen da. Nire ustez, honek zentzu gehiago dauka poemaren testuingurua begiratzen badugu lehenaldiko ‘*çala*’ (zela), ‘*ebilela*’ (zebilela) ‘*çidin*’ (zen) bezalako adizkiak ikus daitezkeelako eta hortaz, testuingurua lehenaldian kokatuta dagoela ikusiko dugu. Beste adizkiak, aldiz, ‘*leiquean*’ lehenaldi urrunean, ‘*leique*’ etorkizun urrunean eta ‘*leidi*’ etorkizun hurbilean edo orainaldi burutugabeen kokatuko genituzke. (Zabala, 1848:31).

3.3.2 JOSE OTXOA ARIN (1713)

(27) *Doktrina Kristiana (1713), laugarren kapituluaren aurkitzen dira haren agerraldiak:*

- a. “*E: Ematen dio graziaren augmentua, zeñarekin gelditzen da kristauba Kristorekin uniturik ain modu marabillosoan, nola gure mingañak ezin **explikatu leikean**,*” [Nor-Nork]
- b. “*Edozein Mandamenturen kontra **egin leike pekatu** pensamentuz, itzaz, eta obraz; argatikan, bada, Konzientzia examinatu bear da*” [Nor]

Alde batetik, Jose Otxoa Arinek forma bera darabil bi paradigmatan. Honek iradokitzen du, **edin* laguntzaileetako *-te-* atzizkiaren erabilera murrizten joan dela. Bestalde, beste formarik erabiltzen ote duen ikusi behar da, hau da, *neike/leiket* daukagun modura, zein da *leike*-ren bikotea? Kontuan izanik autore hau XVIII. mendekoa dela, ez dugu espero *leidi* bezalakorik. Nire ustez, begiratu beharreko adizkia ‘*dai(-te-ke)*’ izan beharko litzateke, izan ere, gaur egungo ikuspegitik begiratzen badugu, *lei* adizkiari ‘*lezake*’-ren balioa parekatu beharrean, ahaleraren ‘*dezake*’ adizkiaren balioa hartu du. Hori horrela, ‘*daike*’ adizkia ordezkatuaz joan dela esan genezake. Baliteke, beraz, *daike* eta *leike*-ren arteko txandakatzea egon izana inoiz.

Orokorrean ‘*dai(-te-ke)*’-ren agerraldiak begiratzen baditugu, askoz gehiago direla ikusiko dugu, ‘*daike*’ 1222 eta ‘*daite(ke)*’ 2029 aldiz ageri dira. Gainera, garai guztietan daude lekukotuak: XVI. Mendean 118 agerraldi, XVII. Mendearen lehen erdian 83 dira eta bigarrenean 80, XVIII. mendearen lehen erdian 235 daude eta bigarren erdian,

945 agerraldi, XIX. Mendean guztira 1077 agerraldi eta XX. Mendean 783 agerraldi. Honekin esan beharra dago, dauden agerraldi guztiekin harrigarria dela ‘*daike*’ adizkiak jatorrizko esanahia galdu izana.

3.3.3 JOSE ANTONIO URIARTE (1850)

(28) *Marijaren illa (1850), “Bizi bedi Marija”:*

*“Lagunik ez daukanak, bakarrik bardin **egin leikez**.”* [Nor-Nork]

(29) *Marijaren illa (1850), “Ejenplua”:*

*“Dakijanak **ezagutu leike**, zelako ultze ta penia izango zan au, ain amodijo andija Jaungoikuari eutsan arima batentzat, eta bera ikusteko ain gurari bizijak eukazanentzat”* [Nor-Nork]

(30) *Marijaren illa (1850), “Seigarren eguna”:*

*“**Asmau leiteke** zorigaiztotasun andijagorik.”* [Nor]

Uriartek ere Nor-Nork eta Nor paradigmak bereizten ditu.

3.3.4 KIRIKIÑO (1918)

(31) *Abarrak (1918), “Zerutar bat”:*

*“-Emon egin dautsot Juaneri eruateko, biar bada guk baño arenbiar ixan geyago **euki lei ta.**”* [Nor-Nork]

(32) *Abarrak (1918), “Itoxurak ziñaldira”:*

*“Gixonen bijotzetan azi txarra ernetia ezta arritxeko; euretan landara gaiztuak ain erraz ta ugari urteten dirala ikusirik **esan leike** azi barik berez jayoten dirala”*
[Nor-Nork]

(33) *Abarrak (1918), “Ziñaldari arteza”:*

*“- Ezaz ixilduko, ez; i beti ixango az betikua; ire onduan ezin **bixi leiteken** iñor be ta, geizto ori.”* [Nor]

Kirikiñoren lehenengo bi agerraldiak Nor-Nork erregimenari egiten diote erreferentzia. Forma aldetik *-ke* atzizkiduna eta gabea dauzkagu, haatik, Kirikiñok ez dut uste Zabalaren sailkapena (1848) erabili duenik, izan ere, perpausen adierari begiratzen badiogu, guztiek erakusten dute ekintza gauzatzeko posibilitatea badagoela. Hori dela eta, jatorrizko *-ke* atzizkiaren balioa Kirikiñok galduta duela esango nuke.

Bestetik, 33. agerraldian ‘*leiteke*’ adizkia daukagu. Halere, badirudi autoreen artean adizki intransitiboan *-te-* morfemaren erabilera pixkanaka galduz joan dela, izan ere, Otxoa Arinen agerraldietan ez dago adizkien arteko bereizketarik, eta Uriartek ere

batzuetan darabilela ikusiko dugu eta beste batzuetan, aldiz, ez.

3.4 1. pertsona plurala: *leikegu(z)- geinke(z)*

Leikegu(z) formari dagokionez, corpusean 30 emaitza ditugu, Juan Antonio Moguel (XVIII. mendea⁷), Pedro Astarloa (1818), Juan Mateo Zabala (1816-1833), Jose Antonio Uriarte (1850), Andres Iturzaeta (1899), Domingo Agirre (1898-1916) eta Otxoluarenak (1932), horietako 29 dira XIX. Mendekoak. Guztiak bizkaieraz idatziak.

Geinke(z) forma berriz, 131 bider agertzen da gure corpusean, lehen agerraldiak Moguelen testuetan (XVIII. mendea) aurkitzen dira, harrezkero XIX. Mendean 29 agerraldi ditugu eta XX. Mendean 84 agerraldi. Ia guztiak bizkaieraz daude idatziak. Forma hau darabilten autoreak hamazazpi dira: Juan Antonio Moguel (XVIII. mendea), Añibarro (c.1804-1821), Juan Antonio Zabala (1816-1833), Jose Antonio Uriarte (1850), J.L. Zutagape (1899), Felipe Arrese Beitia (1900), Jose Manuel Etxeita (1909), Domingo Agirre (1898;1899; 1898-1916;1906;1912), Basabe (1914), Batxi (1914-1916), Federiko Belaustegigoitia (1919), Gabriel Manterola (1921), Kirikiño (1913-1928), Lauxeta (1931;1932;1931-1935), Paulo Zamarripa (1930;1935), Juan Bautista Eguzkitza (1935) eta Kamiñazpi (1963-1989).

3.4.1 JUAN ANTONIO MOGUEL (XVIII.mendea)

(34) *Cristaubaren icasbidea edo Doctrina Cristiania (XVIII. mendea),*

“Cristinautasuneco escari ta gauzac eguiteco bitartecua”:

a. *“I. Cegaitic dinozu gracia dala gueurez gainetico doe bat?*

*E. Cerren **emon ecin leiquegun** Jaincuac berac baño bestec.”* [Nor-Nori-Nork]

b. *“I. Baña celan **obligau gueinquez** orduco esquini, edo promesac, ezpaguequian cer eguiten guenduban?”* [Nor-Nork]

c. *“I. Celan bada **artu gueinque** damu osasuntsu bat lnfernucio penac gomutauta?”*

[Nor-Nork]

Aurreko adibideetan bezala, Moglek Nor-Nori-Nork paradigmán ‘*leikegu*’ adizkia erabili du eta Nor-Nork paradigma adierazteko, berriz, bestea. Mogelen testuetan ez dago txandakatzearen zantzurik.

3.4.2 JOSE ANTONIO URIARTE (1850)

(35) *Marijaren illa (1850), “Zazpigarren eguna”:*

⁷ XVIII. mendea ageri da, *Peru Abarka* 1802. urtean lekukotzen den arren, Moguelen beste lanen datak falta dira, horregatik, mendea jarri dut soilik.

“**Kendu leikeguz** osasuna, ondasunak, eskubidiak, geure gurasuak, edo bizitzia bera. Gura badau, **egin daike** une edo instante bakar baten.” [Nor-Nori-Nork]

- (36) *Marijaren illa (1850)*, “*Maijatzeko illeko kantaak*” kantan aurkitzen da:
“*Zer gura izan **geinke** / Onezaz ostian? / Deijez jaoku bera / Ill oso guztijan.*” [Nor-Nork]

Uriartek kasu honetan, ‘leikegu’ adizkia Nor-Nori-Nork erregimenenean kokatu du, baina gogora dezagun, 13. Adibideko *leiket* adizkiak Nor-Nork erregimena duela.

3.4.3 DOMINGO AGIRRE (1898-1916)

- (37) *Sermoiak (1898-1916)*, “*Presentación*”:
“*Naikua litzateke onetarako, esagutzea zeñi zor diogun gure jaiotza ta gure bizitza, zeñek **eman leikegun** beti betiko zorion betea.*” [Nor-Nori-Nork]

- (38) *Sermoiak (1898-1916)*, “*Asunción*”:
a. “*S. Pedro Damianogaz **esan geinke**: jaijo diran guztiak mutututen dira eta ezin leike bururik jaso Jaungoikuaren amaren aurrian*” [Nor-Nork]
b. “***Ikusi geinke** ondio ontzuago Erromako agintarijak*” [Nor-Nork]

3.5 2. pertsona plurala: *leikezue(z)-zeinkie(z)*

Leikezue(z) forma 18 aldiz ageri den bitartean, *zeinkie(z)* adizkia 6 aldiz ageri da. Orokorrean 2. paradigmako adizkien erabilera askoz urriagoa da besteekin konparatuta, baina ez soilik alegiazko adizkietan baita orainaldikoetan ere. Lehen formaren agerraldi gehienak XIX. mendearen lehen erdikoak dira eta *zeinkie(z)*-renak berriz, XX. mendekoak. Beraz, erabilera urria izateaz gain, lekukotze berantiarra duten adizkiak direla ikus daiteke. *Leikezue(z)* adizkia Pedro Astarloaren (1818), Añibarroren (1802; c. 1820), Juan Mateo Zabalaren (1816-1833), Jose Antonio Uriarteren (1857-1866), Batxiren (1914-1916) eta Nemesio Etxanizen (1923) testuetan aurkitzen da eta *zeinkie(z)*, aldiz, Domingo Agirre (1898-1916), Batxi (1914-1916) eta Kirikiñoren (1913-1928) eskutik.

3.5.1 URIARTE (1857-1866)

- (39) *Beste zenbat itzulpen (1857-1866)*, “*San Juan Apostulubaren apoka-lipsisa*”:
“*esan gura dau, nik goitu ditut erijotzia eta infernuba: ezin **egin leikezube** gatxik, zeubek gura ez badozube.*” [Nor- Nori-Nork]

3.5.2 KIRIKIÑO (1913-1928)

- (40) *Edo geuk edo iñok ez (1913-1928)*, “*Oyartzungo jai ederra*”:

“Or atzerago **ikusi zeinkiez** zenbat eta nortzuk”. [Nor- Nork]

EKC-ak biltzen dituen ‘leikezue’ adizkia Nor-Nori-Nork paradigmakoak da beti eta zeinkie(z), aldiz, Nor-Nork paradigmakoa.

3.6 3.pertsona plurala: *leie(z)-leikie(z)*

‘Leikie(z)’ forma 18 aldiz soilik agertzen da, oso agerraldi gutxi dira 3.pertsona singularraren adizkiarekin konparatzen badugu, horregatik, *-ke* gabeko forma begiratu dut eta adibideek erakusten dute ‘leie(z)’ biltzen dituzten agerraldiak ugariagoak direla 199 agerraldirekin. Baina, agerraldi askozaz gutxiago izaten jarraitzen dute. Bestalde, ‘leitekez’ adizkiak 169 agerraldi ditu. Garaiei dagokionez, ‘leie(z)’ adizkia da XVI.mendean lekukotzen den bakarra, harrezkero garai guztietan ageri den forma da. ‘Leikie(z)’ forma XIX. eta XX. mendeetan eta ‘leitekez’ berriz, XVIII. mendetik aurrera lekukotzen dira.

Forma hauek darabiltzaten autoreen artean Lazarraga (1567), Lizarraga (1771-1800; c.1793), Moguel (1802,1881; XVIII. mendea), Astarloa (1818), Juan Mateo Zabala (1816-1833), Añibarro (c.1820;1803; c. 1804-1821), Iztueta (1824;1847), Lardizabal (1855), Uriarte (1857-1866;1857), Anonimo (1858, XIX. Mendea), Manterola (1877), Azkue (1890), Eusebio Maria Azkue (1896), J.L. Zutagape (1899), Felipe Arrese Beitia (1880-1905; 1902), Kirikiño (1918; 1913-1928;1930), Anabitarte (1932), Lauaxeta (1931;1925-1937;1932), Zamarripa (1935), Mitxelena Salvatore (1949) eta Erkiaga (1958) aurki daitezke.

3.6.1 LAZARRAGA (1567)

(41) *Eskuizkribua (1567), “aide andioc bialdu deustae...” (A24):*

“ene aguinoc ezin jan **leie** / aragui errebagea”. [Nor-Nork]

Lazarragak forma bakarra dauka *Eskuizkribuan*, Nor-Nork paradigmakoa eta *-ke* gabea.

3.6.2 ASTARLOA (1818)

(42) *Urteko domeka gustijetarako berbaldi ikasbidekuak (1818), “XXX. Berbaldija”:*

“Ezin oneek **ikusi leije** dirurik, zirarrik, urrerik, ez beste gauzarik luurpian, eta alan dira gizon alper, guzurti, eta enbusteri batzuk” [Nor-Nork]

(43) “XXXIII. Berbaldija”:

“Botikarijuak **konpondu leije** edateko, enplastu, edo beste osasungei, edo medizina bertatik biar dirianak” [Nor-Nork]

(44) *I. Berbaldija:*

“zerutar areek ezin alderatu, edo **apartadu al leitekezana** legez bere borondatetik, ezin ezer **egin leikiena** legez bere agindubaren kontra” [Nor] eta [Nor-Nork]

(45) XLVIII. Berbaldija:

“ezin **irago leitekez** geure erijotzara baño” [Nor]

3.6.3 KIRIKIÑO (1913-1928)

(46) *Edo geuk edo iñok ez (1913-1928), “Dagokionak ardurea artu bei”:*

“Euskaldunei euskeraz, eurek **aitu leikien** eraz, Jaunaren Barri emon gura ez dautsenak, ez dau ondo betetan bere egin-bearra.” [Nor-Nork]

(47) “Euskerea eskoletan”:

“Bai, irakurleak, alde artako eskoletan maisu-maistrak **irakatsi leie** euskeraz alan gura badabe ta al badabe” [Nor-Nork]

(48) “Euskal idazleen bazkaria”:

“Oneen artean asko dira lekaiide ta jaupariak, eta oneek ezin **leitekez etorri**” [Nor]

Astarloren eta Kirikiñoren adibideetan hiru forma dauzkagu. Alde batetik, Nor-Nork paradigmako *-ke* atzizkiduna eta gabea eta bestetik, **edin* laguntzailearen *-teke* atzizkiduna. Bestalde, Astarloak Zabalaren sailkapena erabili duela esango nuke, baina Kirikiñok berriz, ez, *-ke* morfemak hasiera batean aspektuarekin izan lezakeen lotura galdu duelako, gainera, Kirikiñoren agerraldietako adizkiek posibilitate bera adierazten dutela esango nuke.

Honenbestez, orain, lagin txiki honetatik atera daitezkeen ezaugarriak azpimarratuko ditut:

a) Datu orokorreari begiratu badiogu, lehenik eta behin 2. paradigmako ‘*zeinke*’ eta ‘*zeinkie*’ adizkien erabilera askoz urriagoa dela ikusiko dugu, batez ere 2. pertsona pluraleko adizkietan dago desoreka 6 agerraldi aurkitzen baitira. Horren ondorioz, *zineie*, *zeinkee*, etab. bezalako aldaerak ere begiratu ditut baina, agerraldiak gutxi izaten jarraitzen dute. Egia esan, ez dakit zein izan daitekeen arrazoia, ezin dezaket esan alegiazko formek erabilera urria dutenik beste paradigmako agerraldiek kontrakoa erakusten dutelako. Ahaleraren orainaldiko formak behatuz gero, hemen ere desoreka dagoela ikusiko dugu: ‘*daikegu*’ eta ‘*daigu*’ formen artean 1037 agerraldi biltzen dira eta ‘*daikezue*’ eta ‘*daizue*’ formen artean, berriz, 105 agerraldi soilik.

b) Aipatzekoa den beste ezaugarri bat 3. paradigmako adizkiek duten hedadura da, hau da, ‘*leike(z)*’ adizkiaren 146 agerraldi bizkaierazko testuetatik kanpo aurkitzen dira, halere, agerraldi gehienak mendebaldekoak izaten jarraitzen dute. Baina interesgarria da,

jatorriz mendebaldekoa den adizkia gipuzkerazko testuetan zein nafarreraz dauden testuetan aurkitzea. Gogora dezagun, Irizarren lanak dioena (1991, 1903.or): “*tratamos de examinar la penetración de las flexiones vizcaínas del subjuntivo y del potencial del verbo auxiliar transitivo, en el campo del dialecto guipuzcoano que, en el caso de las flexiones del potencial, es particularmente profunda.*”

c) Hirugarren paradigmako adizkiekin jarraituz, ‘*lei(ke)*’, ‘*leiteke*’ eta ‘*lei(ki)e*’, ‘*leitekez*’ adizkiak dauzkagu, haatik, beste paradigmatan ‘*leiket/neike*’ edota ‘*leikegu/geinke*’ txandakatzek aurkitzen diren moduan, lagin honetan ez dut aurkitu forma parekorik. Adibide bakarra aurkitu dut non orainaldiko eta alegiazko adizkiak batera ageri diren: *kendu leikeguz* eta *egin daike* (36. adibidea), alabaina esan behar da, ez dutela ez aldi bera ezta erabilera bera adierazten. Baina, egungo erabilerari erreparatzen badiogu, ‘*lei-*’ formako adizkiak *dezake* balioa hartu duela ikusiko dugu, horrela bada, agian honek ‘*dai-*’ formaren erabilera gutxitzea eragin du. *Euskal Gramatika puntu batez: ahalaz eta ezinaz* (2002) izeneko artikuluak mendebaldeko hiztun batzuk alegiazko formak orainekoen ordean erabili ohi dituztela dio. Halaber, bizkaierazko testuek kontraste handia eskaintzen dutela batzuen eta besteen maiztasunari begira: *lei vs. daike; nei, da(g)iket; ginai, daikegu, dagikegu; leiteke, daiteke, diteke*. (Goenaga, 202:62).

d) Adizkiei dagokionez, orokorrean *leiket, leikegu, leikezu, leikezue* adizkiek Nor-Nori-Nork erregimena daukate, baina ez beti. Salbuespenak daude Lazarragaren eta Uriarteren testuetan. Lazarragaren *leiquet* adizkiak Nor-Nork erregimena dauka baita Uriarteren *leiket* adizkiak ere. Honez gain, Uriartek badu *leikeguz* adizkiaren adibide bat eta kasu horretan Nor-Nori-Nork-eko paradigmari egiten dio erreferentzia. Gauzak horrela, *leiket/neike* bezalako txandakatzearen eragileak salbuespenak dira, eta lagin guztiko datuak ikusita hasieratik nabarmendu dugun txandakatzeari urria dela ikusi da.

e) Bestalde, adizkien *-ke* eta *-teke* morfemak aipatu behar dira. Alde batetik, lagin guztian zehar *-ke* dun adizkiak eta gabeak ikusi ditugu. Adibidez, Lazarragaren agerraldietan *ney, neyque, leiquet, leian* eta *leyque* adizkiak aurkitzen dira. Badirudi, *-te* eta *-ke* atzizkiek hasiera batean denbora edota aspektua markatzen zutela. Horregatik, Lazarragaren adizkien forma Zabalaren ahalezko sailkapenarekin lotu dut, sailkapen honen arabera bi aspektu izango genituzke aldi bakoitzeko, *-ke* dun adizkiak ekintza bat gertatzeko posibilitatea urrunago bat adieraziko luke eta *-ke* gabeak, berriz, posibilitate hurbilagoa. Aldiz, Kirikiñok ez dut uste Zabalaren sailkapena erabili duenik. Hori horrela, XVI.mendetik XIX. menderarteko epean *-ke* morfemaren balioa aldatuz joan dela esan

daiteke. Bestetik, *-teke* atzizki pleonastikoa aipatu behar dugu, izan ere, **edin* laguntzaileari dagokion *neiteke* adizkiak Uriarteren 13. adibidean *neike* gisa agertzen da iragankorra den adizki beraren forma hartuz: *urrindu neike* eta *ill neiteke*. Adibide bakarra dauka bereizketarik gabea, 29 eta 30. adibideak bereizi egiten ditu. Uriarteren agerraldiaz gain, Otxoa Arinen 27. agerraldi inbertsonala ere badago, *-te* morfema gabe ageri dena. Itxuraz, *-te* atzizkiaren era-bilera baliogabetzen joan dela esan genezake, baldin eta gaurko hizkeren erabilerari begiratzen badiogu.

4 Ahaleraren bilakabidearen ezaugarri orokorrak

Lan honetan mendebaldeko ahaleraren bilakabidea aztertzeko aukera izan dut, egungo adizkiak eta antzinako testu idatzietako adizkiak bilduz. Horregatik, orain, nire ikus-puntua ematea gustatuko litzaidake.

Bizkaiera literarioari dagokion *daiket* adizkia ez da inondik ageri, izan ere, *lei* adizkiari *lezake* parekatu beharrean ahalerako *dezake* parekatu zaio, honen ondorioz, *dezakeren* parekoa den *daike* lekurik gabe geratu da hiztunen ahotan (Goikoetxea,2003:156). Iruditzen zait, honako adiera aldaketek zerikusia izan dezaketela aditz potentzialen orainaldiko adizkien ordezkapenaren kausan. Gogora dezagun, hizkerek bi aldi soilik bereizten zituztela, orainaldiko adizkiak alde batera utziz.

Halaber gazteen artean, esaterako, *lei + teke* zein *lei + ke* adizkien artean transposizioan erortzen gara, *lei* formak *izan liteke* eta *egin lezake* balioak hartzen dituelako. Akorda gaitezen hizkeretako **edin* paradigmako adizkiek *egin* erroko adizkien forma bera zutela. Lan honetan ikusi dugu ezaugarri hau ez dela berria, Uriarteren testuetan eta Otxoa Arinen testuetan ere aurkitzen den ezaugarria baita.

Lan honetan ikusitako beste ezaugarrietako bat sinkretismoa izan da, bereziki, 3. pertsonarekin lotura duten adizkietan.

Lan honen konklusio gisa esan dezaket, ezaugarri hauek guztiak ahalerak izan dituen aldaketen erakusgai direla. Eta nolabait, gaur egungo hizlariak adizkien erabilera aldatzeko beharra izan duela ere uler nezake.

5 Bibliografia

- Arejita, A.; et.al. (2002). *Bizkai euskeraren jarraibide liburua. Lehenengo pausuak*. Labayru ikastegia eta Bilbao Bizkaia Kutxafundazioa, Bilbo.
- Azkarate, M.; Altuna, P. (2001). *Euskal morfologiaren historia*. Elkarlanean.
- Elortza, E.; et. al. (1999). *Arrasateko Euskara*. Arrasateko Udala, Arrasate.
- Goenaga, P. (2002). *Euskal Gramatika puntu batez: ahalaz eta ezinaz*. ASJU, Geh 44, (2002), 261-275. <<https://www.ehu.es/ojs/index.php/ASJU/article/view/9656/8894>>
- Goikoetxea, J.L. (2003). *Euskalkia eta hezkuntza. Dakigunetik ez dakigunera. Euskal diglosia irazian*, IKER-13, Euskaltzaindia.
- Irizar, P. (1991). *Sobre la extensión del subjuntivo y del potencial vizcaínos*. ASJU, 14-2, (1991), 1093-1104. <<http://www.ehu.es/ojs/index.php/asju>>
- Makazaga, J.M. (2010). *Elgoibarko ahozko euskara*. Euskaltzaindia eta EHU, IKER-25, Bilbo.
- Mounole, C.; (2011). *Le verbe basque ancien: étude philologique et diachronique*, Doktorego tesi argitaragabea.
- Sarasua, A.; Agirrebeña, A.; Zenarruzabeitia, L. (2005). *Eibarko euskara. Gure hizketaren doinu eta berbak*. Eibarko Udala.
- Ulibarri, K. (2015). *Doktrinazko Sermoitegia: galduriko hizkerak eta dialektologia historikoa*. Doktorego tesia.
- Zabala, J.M. (1848). *El Verbo Regular Vascongado del Dialecto Vizcaíno*. I. R. Barojaren inprenta: Donostia.
- Zuazo, K. (2000). *Euskararen Sendabelarrak. Saiakera*. Alberdania, Irun.

WEBGUNEAK

- Ahotsak.eus*. Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea. Badihardugu Euskara Elkarte. Hemendik eskuratua: <<https://ahotsak.eus/>>.
- Euskal Klasikoen Corpora (EKC)*. (2013): <<https://www.ehu.es/ehg/kc/>>.
- Klasikoen Gordailua*. Amiarma.eus-ekoek sortua: <<https://klasikoak.armiarma.eus/>>
- Bilbao, G., et al.(arg.), 2010 [ca. 1602], *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa* (1.0), VitoriaGasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: [Kontsulta eguna: 2020/03/05].

Mondraberry. Arrasateko ataria (2019). Eskuragarri < <http://www.mondraberry.com> >